



berria

Igandea
2013ko azaroaren 3a

Jendetza bildu da Arizkunen Kirikoketa bestaren karietara. Sagardoa antzina bezala egin dute, sagarrak eskuz txikituz. Ondoren zukua dastatu, kirikoketa jo, eta besta jarraitu dute.

Gamioxarre dolaretxea, martxan

Iker Tubla Arizkun

Ki-ri-ko-ke-ta, ki-ri-ko-ke-ta, ki-ri-ko-ke-ta ko-ke-ta. Erritmo horri jarraiki, XVIII. mendera itzuli zen atzo Arizkun (Baztan, Nafarroa). Gamioxarre dolaretxean lan eta lan ibili ziren Arizkongo gazteak, antzina sagardoa egiten zuten modua erakusteko. Inguruan hamaika begi, sakelako telefono eta kamera. Dolaretxea txiki geratu zen bildutako jendetza hartzeko. Kirikoketa besta zen, Jo ala Jo kultur elkarteak hamaugarrenez antolatua.

Goizeko hamaikak aldera sei gazte agertu ziren, laborariz jantzirik eta egurrezko lanabesak eskuan. XVIII. mendeko dolaretxean sartu ziren jorna adostu ondoren. Abarkak erantzi, eta ganbaran zirenei sagarrak botatzeko eskatu zieten, lanari ekiteko. Ordurako txistulariak hasiak ziren kaleak alaitzen, eta jendetza eraman zuten Gamioxarreko atarira. Hura da Euskal Herrian martxan den dolaretxe barroko bakarra.

Bozateko sagar joleak omen ziren onenak. Eguzkia ateratzen zenetik ezkutatu bitarte egiten zuten lan. Atzo, baina, gazteak bi orduz aritu ziren sagarra jo eta jo. Antzina egiten zuten moduan, erritmoari jarraiki txikitu zituz-

ten fruituak. Xabier Torresek eman zituen azalpenak, eta esan zuenez, sagar joleek «diziplina» zuten lana eramangarriago egite aldera: «Lana erritmikoki egiten zuten, josteta bihurtzen zuten». Denak batera, bitariko neurrian edota kirikoketa erritmoari jarraiki, baita kantuan ere. Jadanik galduak ziren hainbat doinu kantatu zituzten sagarrak jo bitartean. Kantu ezagunak ere izan zen, *Aldapeko kasurako*.

Sagar joleen artean zen Leonor Laborra Fagoaga. Gaur giharrak mindurik esnatuko zela aurreikusi zuen. Jakin bazekien zertaz ari zen, hiru urte daramatza Kirikoketa bestan parte hartzen. Sagar joleen lana gogorra zela aitortu zuen, ordu asko eta hotz handia pasatzen zutela. Ez zen bere kasua, baina. «Lana da, baina urtean behin eginda dibertigarria. Gure kasuan, sagardoa edaten dugu bitartean, eta giro ona dugu; beraz, ez dugu sufritzen», esan zuen. Kantua eta erritmoak maite dituelako hasi zen kirikoketan. Esan zuenez, kantuan eta elkarri animoak emanez errazago txikitzen dira sagarrak.

Orotara 1.600 kilo zanpatu zituzten. Patxarekin —sagar zatiak— tontortxo bat egin zuten, eta ondoren fruituari zukua ateratzeko makina muntatu zuten. Hiru ardatzek presioa egiten zuten, eta hala lortu zuten hartzitze-



Erritmoekin jolasten txikitu zituzten sagarrak, tarteka kantuen neurriari jarraituta. JAKOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

aren ondoren sagardo izanen den edaria. Jakoba Errekondok eman zituzten lanaren bigarren partearen azalpenak. «Nahiz eta sagarrak jotzea lan handia den, hau [estutzea] jongi egitea da garrantzitsua», esan zuen. Lana bukatzean sagarrak txikitzeko tresnekin kirikoketa jo zuten, ohol batez osatutako perkusio tresna.

Haurrentzako pitarra

Sagardoa nola egiten zen ikusi ez ezik, edateko aukera ere izan zen atzo. Dolaretxeko lehenbiziko so-

lairuan, Baztango hamahiru sagardogileren produktuak bildu zituzten jendeak dastatu zitzen. Gainera, haien arteko harremana sortu edo sendotzeko ere balio izan zuen. Horretaz gain, kanpoan Nafarroako ekoizleen sagardoa ere bazen. Baina alkoholik gabeko edaririk ere edan zitekeen. Hala, Peio Iriarte dolaretxeko beheko solairuan zegoen pitarra nola egiten zen azaltzeko.

«Lehenko sagar Kas-a da hau», esan zuen txantxetan. Izan ere, haurrek edateko zukua zen. Sagar-

rrak mailuarekin hautsi, eta upel erdia betetzen zuten. Beste erdia, urez. Goiko zuloa zapi bat eta zogiarekin estali, eta behar zuen denbora emanda sagar zukua egiten zuten. Iriartek onartu zuen alkohol puntu bat baduela, eta gas pixka bat ere. Dolaretxeko lanaz gainera, Javier Larralderi omenez egin zioten bertako kulturaren alde egindako lanarengatik. Bazkaria, karrikadantzak eta kontzertuak ere izan ziren. Lana eta besta uztarturik, gaur biharamunari aurre egin beharko diote.